

Indarrak bildu burujabetza irabazteko

Hausnarketarako agiria

ELAren Nazio Batzordea

Bilbo, 2008ko urriak 20

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

Indarrak bildu burujabetza irabazteko

ELAren NAZIO BATZORDEA

1. Aurrekariak	3
2. Lizarra-Garaziko adierazpena eta ondorengo aldia	4
<i>Edukia eta esanahia</i>	<i>4</i>
<i>Lorpenak eta konkrezioak</i>	<i>5</i>
<i>Estatuaren erantzuna</i>	<i>5</i>
<i>Okerrak eta zailtasunak</i>	<i>6</i>
3. Hurrengo urteak	7
<i>Itun antiterrorista</i>	<i>7</i>
<i>Transbertsalitateari buruzko kontzeptu baten krisia</i>	<i>8</i>
<i>Hegoaldean nagusi diren bi estrategia abertzaleen balorazioa</i>	<i>9</i>
<i>Erabakitzeke eskubidearen inguruko polarizazioa: azertuak eta hutsegiteak</i>	<i>10</i>
4. Burujabetzaren alde daudenen arteko indar metaketak ez du alternatibarik	12
5. Gure posizioa	13
Oharrak	16

1. Gure historia politiko hurbileko funtsezko gertakari batek -Lizarra-Garaziko adierazpenak, alegia- hamargarren urteurrena duela-eta, ELAko Nazio Batzordearen asmoa da horri buruzko hausnarketa eguneratzea, adierazpenaren testuingurua eta giroa gogoratzea, haren eduki inplizitua eta esplizitua berreskuratzea, haren kudeaketan oker eta zuzen egindakoak aztertea, eta gaurkotzea hamar urte geroago itun hark baliagarritik daukana.

1. Aurrekariak

2. Deklarazio haren testuinguruaz, giro politiko eta sozialaz jabetzeko, 1997ra jo behar dugu, garrantzi politiko handiko zenbait gertakari izan baitziren urte hartan.
3. Ajuria Eneako mahaiarenak egin zuen jada ordurako. Gizartea erdibitu besterik ez zuen egin itun hark ("demokratak", batetik; "biolentoak", bestetik), eta ENAM gero eta gehiago baztertu. Urte batzuk lehenago ELAk eta LABek elkarrekin abiatutako lankidetzak, berriz, are gehiago higatu zuen erreferentzia politiko hura, Ajuria Eneako ituna. Testuinguru zaila zen hura, non distentsioa, elkarrizketa eta negoziazio politikoaren aldeko iritzi-korrante bat bultzatu zuen 'hirugarren eremua' zeritzon hark (Elkarri, elizako zenbait sektore, kazetari bakan baina esanguratsu batzuk, unibertsitateko hainbat irakasle...). Garrantzi handia izan zuen elkarrizketaren aldeko eremu sozial hark (oso aktiboa eta irekia) LABekin adostu genuen lankidetzaituna bultzatzeko.
4. Sekulako asaldura eragin zuen gizartean Miguel Ángel Blancoren hilketak (1997ko uztaila), eta oso egoera txarrean utzi zituen alderdi abertzaleak. Ezezko biribila eman zion euskal gizarteak ENAMen estrategia nagusiari (sufrimenduaren hedapena, kale-borroka, borroka armatua, kontramanifestazioak...). PPK, berriz, urtebete zeraman estatu espainiarreko gobernuan, eta ezker abertzalearen aurka sekulako jazarpen judizialari ekin zion, gero mugimendu abertzale osoaren aurkako eraso politiko eta soziala abiarazteko asmoz. Erasoaldi haren unerik aipagarrienak HBko Mahai Nazionalaren auzipetzea eta espetxeratzea (97ko abendua) eta Egin-en itxiera (98ko uztaila) izan ziren. Berme demokratikoen eta botere-banaketaren aurkako itzulera gabeko bideari ekin zion, bada, espainiar sistema judizialak. 2000ko itun antiterroristak (PP-PSOE) babesa eman zion, bestalde, jokabide antidemokratiko eta errepresibo hari.

5. ELAk 1997ko urrian Gernikan egindako ekitaldiak, bestalde, asaldatu egin zuen euskal politika. Edukiei zegokienez, ez zuen aparteko berrikuntzarik ekarri ekitaldi hark (Estatuaren bidea behin betikoz eta ofizialki amaitutzat jotzea izan ezik), baina, orduko testuinguruari begira, egokia eta zuzena izan zen adierazpen hura. Giro hartan (asaldura soziala, mugimendu abertzalearen kriminalizazioa...), bada, Trantsizioaz geroztiko lehen ekitaldi publiko plurala izan zen, han baitzeuden alderdi abertzale guztietako ordezkariak, eta hainbat eragile politiko, sindikal eta sozial.
6. Hiru mezu nagusi hauek plazaratu ziren Gernikako ekitaldian: "Hilda dago Estatutua"; "ETAk enbarazu besterik ez du egiten", eta "Elkarrengana bildu beharra daukagu burujabetza euskal herritarrei dagokiela uste dugunok"¹. Bide batez, eraikuntza nazionalaren alde jarduteko dei egin zitzaion mugimendu abertzale osoari, "bakoitza bere erritmoan, bere ezaugarriekin".
7. Urte hartako abenduan, José Luis Casoren hilketak zapuztu egin zuen HBko zuzendaritza espetxeratzearen aurka sindikatuek egin behar zuten lanuzte- eta manifestazio-deialdi bateratua. ELAren "heldutasun ezari" egotzi zion ETAk deialdiaren ezeztatzea, baina, horren ordeztan, beste zer bat erakutsi zuen atentatu hark: gizarteari batere jaramonik ez dietela egiten erakunde armatuek. Urtarrilean, amaitutzat jo zuten PPK eta PSOEek Ajuria Eneako Ituna, ez baitzuten aintzat hartu nahi izan 'Ardanza Plana' zeritzona. Elkarrik, berriz, Konstituzioaren Lehen Xedapen Gehigarriari etekina ateratzea proposatu eta Irlanda Foroa zeritzona abiarazi zuen, politikari, sindikatu eta gizartearen hausnarketa bultzatzeko. Bien bitartean, diskrezioz ari ziren elkarrekin hitz egiten EAJko eta ezker abertzaleko ordezkariak. PSE-EEK Jaurlaritzatik alde egin zuen maiatzean -hamabi urte eta gero-, aitzakiatzat harturik Kirolaren Legea onartu zela eta EAJk eta EAK uko egin ziotela Eusko Legebiltzarrean espainiar Konstituzioa aintzat hartzeari. 1998ko urriko hauteskunde autonomikoetarako lehia prestatzen hasia zen.
8. CiUk, BNGk eta EAJk, bestalde, Bartzelonako adierazpena, estatu espainiarraren egituraketa konfederalaren aldekoa, izenpetu zuten. Izan zen, halaber, distentsioaren aldeko eta euskal presoen sakabanaketaren aurkako keinu eta proposamenik, baita erakundeen aldetik ere. Irlandako Ostiral Santuko hitzarmenak, berriz, erreferentzia eta ikasgai interesgarriak zituen Euskal Herrirako, hemen ere antzeko prozesuren bat abiarazteko. Aurrera egiteko ezinbesteko baldintza zen ETAk ekimen soberanista berrira 'egokitzea' 1995eko bere Alternatiba Demokratikoa.

2.

Lizarra-Garaziko adierazpena eta ondorengo aldia

Edukia eta esanahia

9. Autodeterminazioaren aldeko indarrek sinatu zuten Lizarra-Garaziko deklarazioa, 1998ko irailaren 12an. Adierazpen hark zioen jatorri politikoko gatazka historikoa dutela elkarrekin Euskal Herriak, alde batetik, eta estatu espainiarrak zein frantsesak, bestetik. Bakearen alde

lan egingo zutela hitzeman zuten deklarazioaren sinatzaileek, eta, helburu hori iristeko, baldintzarik gabeko elkarrizketa eta negoziazioa aldarrikatu zituzten. Gatazka konpontzeko ardatza zen Euskal Herriaren borondatea, modu demokratiko eta baketsuan adierazia, aintzat hartzea, deklarazioak zioenez.

10. Lizarra-Garazik, azken batean, gatazka konpontzeko metodo bat iradokitzen zuen (demokrazia sakonagoa, eta herritarren berrespena), eta ez zuen haren inongo amaiera jakinik irudikatzen ("Euskal Herriak du hitza eta erabakia"). Deklarazioa plazaratu eta handik egun gutxira, su eten "mugagabea eta baldintzarik gabea" aldarrikatu zuen ETAk. Huraxe izan zen printzipio haien inguruan aro berri bati ekiteko kate-mailarik nagusia (eta ezinbestekoa). Hala, bada, jarri zen deklarazioak proposatzen zituen elkarrizketa-prozesuak abiarazteko giro ego-kia.
11. Su-etena zela medio, ilusio eta itxaropen handiko sasoiak ekarri zion deklarazioak euskal gizarteari. Abertzaleentzat, bereziki garrantzitsua izan zen elkarrekin aritzea Trantsizioaz geroztik bananduta zebiltzan korrante politikoak, eta ia urte eta erdiz euskal politikaren ardatza ez izatea indarkeria eta haren ondorioak.

Lorpenak eta konkrezioak

12. Lizarra-Garazik izan zuen lorpen eta zehazpen objektiborik. Distentsio-garai oso aktiboa abiarazi zuen, batez ere euskal presoek eskubideen alde, bai gizartearen (Batera), bai erakundee-tan. Lan-alorrean, 'Presoak lankide' ekimen sindikala sortu zen. 1999ko urtarrilean, berriz, manifestaldi jendetsua egin zen, Bilbon, presoek eskubideen alde.
13. Auzo eta herri guztietan sortu ziren Lizarra-Txikiak zeritzenak, deklarazioa sinatu zuten indarren topaguneak, elkarrekin politika egiten ikasteko lekuak. 1999ko otsailean, Udalbiltza sortu zen, udal-erakunde nazionala, eta irailean bere bigarren asanblada ospatu zuen, bertan zazpi herrialdeetako 1.700 bat alkate eta zinegotzi izan zirelarik. Bestetik, Euskal Herriko bost estadiotan euskararen alde egin ziren aldi bereko bost ekitaldiek argi erakutsi zituen horrelako prozesu baten onurak.
14. Azpimarratzekoa da Ipar Euskal Herriak inoizko mobilizazio abertzalerik sutuena izan zuela sasoi hartan, bai errepresioaren aurkako ekinean, bai euskararen eta bertako erakunde pro-pioen aldekoan.

Estatuaren erantzuna

15. Hasiera-hasieran izan ezik, bake-prozesurako aukera hura boikoteatzea erabaki zuen Aznarren gobernuak (Mayor Oreja barne ministroa zela): ukatu egin zuen gatazkek jatorri politikorik zuenik, ez zuen onartu bloke konstituzionala zalantzan jartzen zutenen zilegitasun demokratikoa, abertzaletasunari egotzi zion indarkeriaren ardura, eta disidentziaren aurkako jazarpen politiko, judizial eta polizialari ekin zion. Bestalde, zatiketa eta haustura sozialaren izua zabaldu zuen, arduragabekeria izugarri, euskal eta espainiar gizarteetan. Argi dago estatuarentzat administratzeko hipotesi politikorik zailena jite zibil, demokratiko eta autode-terminista duen indarren metatzea dela. Gure esparruan Miguel Sanz buru zela Nafarroako

Gobernuaren erreakzioa ere antzekoa izan zen: urriko lehen egunetan Lizarra-Garaziko adierazpenaren aurka Parlamentuan agiri bat egin zuen.

Okerrak eta zailtasunak

16. Hutsegite eta zailtasunik ere izan zuen Lizarra-Garazik. Hasteko, zaila zen elkarrekin lanean jarraraztea horrenbeste denboraz elkarren aurka jardundako indar politikoak, bakoitza bere lidergo eta oinarri militante jakin batzuen jabe. Boluntarismoa ere gogotik ibili zen prozesu hartan; izan ere, ohartzen ziren sinatzaileak zenbaterainoko arduraren bereganatua zuten, eta bazekiten eragileek estrategiaz aldatu beharra zeukatela, elkarrenganako konfiantza ezinbestekoa zutela bide hartan aurrera egin eta prozesua ez zapuzteko. Lorpena zen, berez, Ajuria Eneako Itunaren garaiko 'demokratak-biolentoak' binomio hura ezabatu izana, baina ez zen erraza bestelako girorik sortzea. Bestalde, ELAk salatu zuen legez, prozesuak ez zuen izan gehiengo abertzaleak kudeatutako erakundeen laguntza aktiborik, distentsioari eta erai-kuntza nazionalari laguntzeko ekimen ausartagoak bultzatzeko ahalmenik bazeukaten arren.
17. Su-etena indarrean zegoen arren, ezin ahaztu kale-borrokak bere horretan iraun zuela, eta, kalte pertsonal eta materialak eragiteaz gain, izugarri lagundu ziela jarduera hark Lizarra-Garaziren aurkakoen argudioei.
18. Akatsik nagusia, ziur aski, izan zen ez zela lan-planik eratu autodeterminazioaren aldeko prozesua proposatu eta gero. Ezinbesteko baldintza zen, baina, plan hura zehaztu eta mamitzea indar-proporzioa hobetzeko; hots, Euskal Herriaren hitzak eta erabakiak estatuen erresistentziak urratzeko baldintza egokiak finkatu beharra zegoen. Orduan -eta orain- ez estatu espainiarrak, ez frantsesak (Kanadak edo Britainiak Handiak ez bezala, adibidez) ez zioten konponbide demokratikorik eman nahi euskal auziari. Horregatik, boluntarismo hutsa ziren lan-plan jakinik gabe esparru-aldaketa bultzatzeko egutegi edo proposamen guztiak. Planik ezari dagokionez, deklarazioa sinatu zuten erakunde guztiek (ELA ere tarteko) ez zituzten, segur aski, behar bezain estu eta gogor presionatu itunaren eragile nagusiak.
19. Bestalde, sindikatu abertzaleok ere ez ginen gauza izan geurea zen agenda bateratua eratzeko sasoi hartan, nahiz eta aurreko urteetan sindikalismoa izan horretan gehien aurreratu zuen alorra eta, horrexegatik, prozesu soberanista gizarteratzen gehien lagun zezakeena. 1999an, enpleguaren aldeko kanpaina arrakastatsua egin genuen -35 orduko lan-astearen eta soldata sozialaren alde-, eta greba orokor handiarekin amaitu zen, maiatzean. Baina distentsio- eta indar soberanisten metatze-garai hura ez genuen aprobetxatu sindikatu abertzaleen arteko batasun estrategikoa eta iraunkorra sendotzeko, eta beste jokabide batzuk (elkarrekiko lehia) gainditu ziren. Garai hartan, EAEko gobernuak beste korrante abertzale nagusiaren laguntza izan zuen aurrekontua aurrera ateratzeko, horren joera neoliberal nabarmena zuzentzeko eskatu gabe gainera. Datu horrek garbi adierazten zuen ez zela hura sindikatuentzat sasoi aproposa izango.
20. Hegoaldean, bestetik, ez ginen ohartu zenbateraino eragin zituen Lizarra-Garaziko deklarazioak erreferentzia politiko berriak Ipar Euskal Herrian (lurraldetasuna, aliantzak...), nola ari

ziren zabaltzen, pixkanaka, dinamika sendoak. Justu aro hura amaitzear zela hasi ziren gorputzen eta emaitzak sortzen dinamika haiek, Udalbiltzaren inguruan batik bat.

21. ELAren iritziz, gehiegizko eskakizunak aldarrikatu eta presa handiegiz jardun ziren batzuk su-etenaren haustura-atarian. Gure ustez, prozesu sozialaren egoerak, erritmoek eta ikuspegiak ez dute zertan bat etorri erakunde armatu baten presa eta ikusmirarekin. Gizartearen prozesuak errespetatu egin behar dira, are gehiago haren hitza eta erabakimena defendatzen dituela dioenak. Beraz, borroka armatuaren amaierak ez zuen zertan egon indar politikoen konpromiso eta epe jakin batzuk onartzearen mende, indar horiei baitagokie, soil-soilik, konpromiso eta epe horiek gauzatzea.²
22. Azkenik, espainiar Trantsizioaz gerotik mugimendu abertzaleak -oro har- inoiz izan duen garai ilusionagarriena, gizartearen aldetik biziena eta pluralena hankaz gora jarri zuen ETAK su-etena bertan behera uzteak. Jarduera armatuari berrekitea kaltegarri izan zen (eta hala da gaur egun) Euskal Herriaren interes nazionalentzat, eta bateraezina Lizarra-Garaziko eragileek martxan jarritako eta martxan jartzekoak ziren ekimen politiko eta sozialekin, berez arbuigarria izatez gain, noski. ELAren ustez, erakunde armatu batek -inongo oinarri soziali konturik ematen ez dionak, gizartearen onespenerik gabeak- ez du eskubiderik gizarte antolatua konpromiso nazionalen eta jarduera politikoaren epaile bihurtzeko.

3.

Hurrengo urteak

23. Hausnarketa honen helburua ez da Lizarra-Garaziko itunaren ondorengo urteen azterketa sakona egitea, baina azpimarra ditzagun zer batzuk, garai oso-oso garrantzitsu hartaz ikasgai batzuk erauzteko baliagarri izan dakizkiguke eta.

Itun antiterrorista

24. Lizarra-Garaziren ondorengo urteetan, gogor aplikatu zuen Estatuak itun antiterrorista (PSOEek sortua, PPK onetsia eta gauzatua). Politika honek nazioarte mailan babes handiagoa izango du 2001eko irailaren 11ko atentatuen ondoren, mundu mailako segurtasun politikei esker. Itun haren helburua, besteak beste, ETAren jardun biolentoa kapitalizatzea zen, independentismoa gogor erreprimatuz, eta ideologikoki baliatzea nazionalismoa oro har kriminalizatzeko; horrela, bakea eta demokrazia Espainiaren batasunarekin eta sistema konstituzionalarekin identifikatzen da, eta gaitzetsi egiten dira, bide batez, 25 urteko autogobernuak ekarri omen dituen "dezentralizazioaren gehiegikeriak". PPK kendu egin zuen agenda politikotik euskal gatazka bake bidez konpontzeko asmoa, eta "demokrazian zeinahi proiektu aldarrika daiteke" esatetik ideologiak kriminalizatzea eta indar politikoak legez kanpo jartzera aldatu zen. Bistakoak dira herritarren askatasunek, berme demokratikoen eta giza eskubideek pairatu duten atzerakada, eta hala diote nazioarteko zenbait talde eta erakunde ospetsuk: disidentzia ororen aurkako errepresioa, politikaren judizializazioa, botere-banaketaen aurkako erasoak, zuzenbide-estatuak onartu ezin dituzten legeak, espetxe-politika gizagabea...

25. Hausnarketa ugari egin dugu azken urteotan itun hori dela eta³. Azpimarratu behar dugu, baina, zer gehiago izan zen ituna: abertzaleen arteko elkarlana (Lizarra-Garazikoaren antzeko oro) zapuzteko Estatuaren erantzuna, terrorismoaren aurkako borroka aitzakia zela. Bizirik diraute itunaren euskarri nagusiek, eta kontradinamika soziala du xede, hau da, burujabetza-aren aldeko indarren batasuna eragozte, autodeterminazioaren aldeko indarren arteko zubiak eraistea, eta etsipenera bultzatzea zenbait arlotan eraikuntza nazionalean dihardutenak.

Transbertsalitateari buruzko kontzeptu baten krisia

26. Lizarra-Garaziko itunaren ondorengo urteetan, helburu berarekin jardun dira Hego Euskal Herriko bi korrante abertzale nagusiak: Estatuarekin edo, behintzat, Espainiako bi alderdi nagusiekin hitzarmenen bat adostea euskal auziari konponbidea aurkitzeko.
27. Sarritan esan izan dugunez, harrigarria egiten zaio ELAri jokabide politiko hori⁴, 1998-2000 epean garbi ikusi baitzen estatu espainiarrak eta frantsesak ez dutela batere asmorik gatazkari konponbide demokratikoa emateko, eta 2000ko abenduko itun antiterroristak erabat berretsi zuen jarrera hori, bi estatuetako aparatu eta botereen eta bertako eragile politiko eta sindikalen oniritzi osoarekin. Kataluniako Estatutuari egindakoak, edo EAEko autogobernuaren kudeaketak berak garbi erakusten dute PSOE (eta PP, jakina) ez daudela prest euskal gatazkari bide demokratikotik ekiteko. Espainiako gobernuen gaurdainoko jokabide errepre-sibo, antidemokratiko eta uniformatzaileak berretsi egiten du indar estatalistei buruzko gure diagnostikoa, eta behin betiko bihurtzen.
28. Estatuarekin ados jarri behar horrek ('zeharkakotasuna' deritzona), bestalde, hau adierazten du: onartu egiten dela Lizarra-Garaziko ituna baztertzalea izan zela. ELAren iritziz, ordea, Lizarra-Garazik dagokion lekuan jarri zuen zeharkakotasuna, hots, euskal herritarrek erabakitzen dutena aintzat hartzea dela zeinahi proiektu gauzatzeko bide bakarra. Espainolismoak ezarritako zeharkakotasun-kontzeptua onartzeak gure burua mugatzea dakar, mugimendu abertzalea bazterrerara geratzea eta uko egitea gure nahiari: Euskal Herria nortasun propiodun herria izatea nazioartean.
29. Komeni da gogoratzea, bestalde, historia politiko hurbilean errepikatzen ari den zerbait: indar estatalistek gutxiengo diren eremuetan bakarrik aipatzen dute zeharkakotasuna, aldaketa politikoari betoa jartzearen. Aitzitik, inoiz ez dute aldarrikatzen printzipio hori gehiengo diren tokietan (Nafarroan edo Estatuko erakundeetan, adibidez).
30. Azkenaldi honetako egoera politikoa aztertzeko ere balio digu hausnarketa horrek, adibidez Nafarroan. Mugimendu abertzaleak behin betiko ondorio batera iritsi behar du: Ez da posible Nafarroan sistema konstituzionala alderdi sozialistarekin batera aldatzea, ezta indar horrekin Foru-Komunitateko egungo botere-egiturarentzako alternatiba bat eratzea ere. Gertakariak aski argi eta behin eta berriz frogatu dute "estatu arrazoia" beti izango dela balio progresisten gainean sustatutako lankidetzaren ororen gainetik.

31. Benetako zeharkakotasuna litzateke proiektu bakoitzak, bestekiko lehia garbian, bestearen hautesleak 'bereganzateko' aukera izatea, eta ez norberaren proiektuari uko egitea eta, gehienera ere, bestearen 'baimena' jasotzea.
32. Beste era batera esanda: akats larriak egin zituen Lizarra-Garaziko itunak, baina ez zen hitzarmen baztertzailerik sinatu. Arazoa ez zen izan bi espainiar alderdi nagusietatik bat behintzat ez egotea itunean, zenbaitek hala dioen arren. Elkarrizketa eta negoziatorako gonbita zen Deklarazioa, proiektu politiko guztiekiko errespetu erabatekoz egina, baita Espainiaren batasuna aldarrikatzen dutenekikoa ere, baina Konstituzioak ezartzen duen Espainiaren batasuna denok onartzeko obligazioaren abantaila eman gabe horiei. Elkartu zitzakeen bakarrak elkartu zituen Lizarra-Garaziko itunak: autodeterminazio-eskubidearen eta euskal gatazkari konponbide demokratikoa ematearen aldekoak.

Hegoaldean nagusi diren bi estrategia abertzaleen balorazioa

33. Anoetako proposamena aurrerapauso garrantzitsua izan zen, ENAMek beti aldarrikatu izan duen konponbidearekin alderatuta, eta halakotzat jo zuen ELAk bere garaian. Testuinguru horretan, ETAREN 2006ko su-etenak elkarrizketak (nola edo hala publikoak) abiarazi zituen alderdi sozialistako eta Espainiako gobernuko ordezkariekin.
34. Alabaina, uste dugu ENAMen asmoa zela, ordura arte bezala, borroka armatuaren auzia eta gatazka politikoa aldi berean konpontzea, nahita nahasiz bi negoziazio-mahaietako bakoitzari zegozkion eginkizunak. Gure iritziz, erritmo eta subjektu desberdinak behar dituzte batak eta besteak. Aljerreko elkarrizketetatik dator hutsegite hori. Ez gara esaten ari gutxietsi egiten ditugunik bake-hitzarmen baten balioa, horretara iristeko zailtasunak eta ondorio politikoak. Nolanahi dela ere, erabateko lehentasuna eta premia du borroka armatuaren zikloa amaitzeko.
35. Elkarrizketa prozesuak porrot egin ondoren ETAK berriro armei ekitea erabateko hankasartzea izan da. Saminezko beste aldi bat hasi du, eta gure herriak behin betiko atzean utzi nahi du hori; bizikidetzaren ardatz izan behar duten printzipio eta balioen aurkako eraso da, eta antzutu egiten du, hein handian, Euskal Herriaren askatasunaren alde egunero diharduten milaka lagunengatik, zibil eta demokratikoa.
36. Bestalde, gogora arazi nahi dugu 2003an Lehendakariak Estatuari epe bat ezarri ziola eta mehatxu egin zuela aldebakarretik garatuko zituela transferitu gabeko eskumenak, eta horien kostua Kupotik kenduko zuela, baina mehatxua ez zuen bete; halaber, 2004ko abenduan iragarri zuen Legebiltzarrean onartutako Estatuto politiko berriaren proposamenari buruzko galdeketa egingo zuela, Espainiako Korteetan errefusatzeko bazuten ere (baita hala gertatu ere), baina emandako hitza ere ez zuen bete. Aitortu beharra dago ekimen horiek, gero hirukoaren bide-orria bezala, Estatuari egindako benetako desafioa zirela; ekimen horietatik, positibotzat jo dugu legebiltzarretik egin izana eta, nolabait bederen, erabakitze eskubideari ekin izana.
37. Azken gertakariak gogoratzearen, 'bide-orriaren' inkoherentzia sakonak ere azpimarratu izan ditugu: legealdi osoa agortu izana, adibidez, Estatuaren ezezkoa erabatekoa zela ohartzeko;

aldez aurretik soberanismoaren eta estatutismoaren arteko eztabaida argitu gabe gaiari ekin izana indar politiko nagusiek; indar politiko eta sozialen metaketa beharrezkoa zela 'ahaztu' izana... Ekimenaren nondik norakoa ere guztiz instituzionala izatea ere bere muga estuen adierazgarri da. Gainera, galdeketa mundu abertzalearentzat mugari garrantzitsua izanik, arduragabe erabili da, eta sinesgarritasuna alferrik kendu zaio. Halaber, Jaurilaritzak ez du tinko babestu egungo autogobernu-maila, eta alderantzizko bidea ere hartu izan du gai garrantzitsu batzuetan (etengabeko prestakuntza...). Hartara, estatu espainiarreko ereduari atea libre utzi dio; hala eskatzen zioten estatuko sindikatuek, hain zuzen lan harremanen euskal esparruaren aurkakoak, gure esparruan oso minoritarioak eta bere programa neoliberalak laguntzeko oso funtzionalak direnak. Ikuspuntu sindikaletik, gainera, gogora arazi nahi dugu eskumen mailak defenditzea bezain funtsezkoa dela ahalmen horiek zertarako nahi eta behar diren azaltzea.

38. Bestalde, etsigarria izan da Gasteizko hiruko gobernuaren eta Legebiltzarraren erantzuna Auzitegi Konstituzionalak Kontsulta Legeari buruzko ebazpenari (bistakoa zen zer erabakiko zuen!) eta "Europara jotzea" baliabide erretoriko baino ez dena izatea ordezeko plan bakarra, inongo edukirik gabea.
39. Honenbestez, sinadura-bilketa proposatu dute, non sinatzaileak eskatzen dien alderdi politikoei "eusteko beren programa eta proiektuetan euskal herritarren erabakitzeko eskumen osoari", burujabetza-eskubidea desagertzeaz balego bezala. Bestetik, sinatzaileak bat egiten du "herri-kontsultaren alde Europako eta nazioarteko foroetan alderdiek aurkeztuko dituzten eskariekin". Beraz, ez dira alderdiak irmoki azaltzen direnak zenbait forotan Kontsulta Legeari alde (auzitegiak desagertu egin dira, nonbait): sinatzaileak atxikitzen zaizkio alderdi horiek gerora bultzatuko dituzten (edo ez) ekimenei. Nabarmena da proposamen horren hauteskunde-kutsua, bai prestakuntzari, bai kudeaketari dagokienez.

Erabakitzeko eskubidearen inguruko polarizazioa: azertuak eta hutsegiteak

40. Nolanahi dela ere, alderdi positibo gisara azpimarratu beharra dago, aipagai dugun garai honetatik, autodeterminazio-eskubidea izan dutela ardatz proposamen eta diskurtsoek. Izan ere, eskubide hori izan dute abiapuntu bi korrante abertzale nagusiek azken zortzi urteotan (esparru demokratikoa-Anoeta, batetik; Estatutu politiko berria-Kontsulta Legea, bestetik).
41. Noski, ezinbesteko osagaia du eremu politiko abertzaleak eskubide hori, hori baita herriek beren etorkizuna hautatzeko mekanismo demokratikoa, bai barne-egituraketari, bai beste herri batzuekiko harremanei dagokienez. Alde horretatik, aurrerapauso handia egin du eztabaida politikoak hamarkada honetan, aurrekoekin alderatuta, burujabetza bihurtu baita ardatz korrante politiko guztietan. Are beharrezkoagoa zen aldaketa hori ikusirik Gernikako Estatutuaren eta Foru Hobekuntzaren krisia, eta zer esanik ez Frantziako administrazioaren pean dauden euskal lurraldeen bertako erakunderik eza.
42. Hala eta guztiz ere, ELAren iritziz, eraikuntza nazionalak beharrezkoak dituen zenbait alderdi eta bereizi ezinako lan-esparruak bazterrerara utzi ditu erabakitzeko eskubideari buruzko ezta-

baidak. Lizarra-Garaziko Deklarazioan esplizituki ageri ez ziren arren, ekimen haren funtsezko osagai izan ziren alderdi horiek.

43. Funtsezko eta ezinbesteko ziren (eta diren) zenbait alderdiri buruz ari gara: gizartea sustatzea (mobilizazioak), herritarren partaidetza eta militantismoa (Lizarra txikiak), hizkuntza-eskubideen gaineko eztabaida, euskararen sustapena eta eginkizuna eraikuntza nazionalako prozesuan, udalgintza eta lurraldetasuna (Udalbiltza), demokraziaren aldeko eta errepresioaren aurkako borroka, bakearen eta giza eskubide guztien aldeko ekimenak... Oso aberatsa izan zen sasoi hura alderdi sozial eta laboralei buruzko eztabaidari dagokionez ere. Lizarra-Garaziko esparru konkretetik at izanagatik ere, sindikatu abertzaleek dinamika aipagarri bat abiarazi zuten eraikuntza nazionalak behar dituen elkartasun- eta justizia-balioei buruz (soldata soziala, 35 orduko lan-astea...), horiek baitziren, gure iritziz, mugimendu sindikalak prozesu nazionalan egin behar zituen berariazko ekarpenak.
44. Aipatzekoa da, bestalde, erabakitze eskubidearen aldekoak omen diren alderdiek agintzen duten zenbait erakundek oztopoak jartzea (edo galaraztea) herritarren eta zuzeneko partaidetzari (kontsultak...) eta gizartearentzat garrantzizkoak diren gaietan (AHT, HEL, zerga-politika) aritzeko eskubideari. Eragile politiko batzuen egiazko jarrera argitzeaz gain, jokabide horrek hutsaldu egiten du herritarren aurrean aldarrikatzen omen den printzipio politiko hori.
45. Genioenez, erabakitze eskubideari buruzko proposamen politiko 'handien' polarizazio horretan bazterrera utzi dira beste erreferentzia eta balio asko, abiarazi nahi omen zen prozesuaren berezko osagaiak ziren arren (euskara, udalgintza, Zazpiak bat, lurraldetasuna, gizartearen partaidetza, gizarte-eredua, militantzia...). Ez dugu esaten helburu nazionalen aldeko fase taktiko guztiek balio eta borroka guztiak bereganatu behar dituztenik; aldiz, kontzientzia nazionalaren osagaiak ezin dira elkarrengandik bereizita garatu, erreferentzia sozial eta politiko aberasgarriak behar dituzte behar bezala hazteko.
46. Are gehiago; gure iritziz, elementu bakar bati begiratzeak eta, horrekin batera, batasunik ezak, helburu erkideen alde aliatu bila ez jarduteak, hutsegite hauek egitera eraman gaitzaketete:
 - Uste izatera burujabetza eskuratuz gero kontzientzia nazionalaren gainerako balio eta osagaiak (euskara, lurralde-batasuna...) berez gureganatuko ditugula, edo osagai horiek gabe ere burujabetza erdietsi dezakegula pentsatzera.
 - Uste izatera beste sektore batzuek (sindikatuak, kultura-eragileak...) bultzatzen dituzten ekimenak sektorialak direla, hots, bigarren mailakoak, helburu 'gorenaren' itzalpean egon beharrekoak. Pentsaera horrek mespretxatu egiten ditu euskal gizarte antolatuak beti egin dituen ekarpenak, funtsezkoak.
 - Kontuan ez hartzerako edo mespretxatzerako lurralde bakoitzeko egoera bereziak, zeinek lan espezifikoak eskatzen dituzten. Oso ahaztua daukate gai hau gehienek, erakunde publikoek batez ere.
 - Helburu estrategiko erkidea (autodeterminazioa) alderdikierietarako erabiltzerako, helburu hutsal, birtual bihurtzerako eta, hala, gizartearen aurrean zilegitasuna kentzerako.

47. ELAren ustez, itzuli beharra dago Lizarra-Garazi geratu zen une hartara: elementu erkide batzuk adostu behar dituzte autodeterminazioaren aldeko indar guztiek, burujabetza-prozesu bat bultzatzeko gutxieneko osagaiak zein diren zehaztu behar dute.

4.

Burujabetzaren alde daudenen arteko indar metaketak ez du alternatibarik

48. ELAk ezin du aipatu gabe utzi hausnarketa honen testuinguru zail eta mingotsa, bai mugimendu abertzalearentzat, bai euskal gizarte osoarentzat: gizartearen zati bat esku-hartze politiko normalizatutik kanpo dago; herritar asko mehatxupean bizi dira (baita heriotzaren mehatxupean ere), estortziopean; milaka herritar daude askatasunik eta oinarrizko beste eskubide batzuk gabe; asko dira errepresioak edo estortzioak ihes egitera behartuak; berme demokratikoak erabat desitxuratu dituzte estatu espainiar eta frantsesak, beren boterea berretsi eta disidentzia ezabatzeko; eremu abertzaletik, berriz, proposamenak ez dira egiten indarrak metatzeko eta lankidetzarako borondatearekin... Horrenbeste urtetako gatazkak nekarazi egin du gizarteak, etsipenera eraman du lanerako gogo biziz legokeen jende asko.
49. Alabaina, milaka lagun ari dira jo eta su lanean Euskal Herrira bakea, aurrerabidea eta askatasuna ekartzeko. Zailtasun zailtasun, ELAk uste du jende horrengan guztiarengan, denboraren poderioz, heldu eta loratu direla eraikuntza nazionalaren aldeko konpromiso kolektibo eta bateratuak eskatzen dituen oinarrizko irizpideak, hau da, eraikuntza nazionalako prozesuak zibila izan behar duela, herrikoia, parte-hartzailea, baketsua, lurralde osoak aintzat hartzen dituen...
50. Beraz, gizarte antolatuko indar abertzaleok ez ditugu zapuztu behar hainbat eta hainbat herritarren itxaropenak, eta "ahalegin handia egin behar dugu gure nortasun kolektiboa bizitzeko ditugun era guztiak aberastu eta sakon jorratzeko, eta gure herriari etorkizuna eraikitzeko eginkizunera euskal gizarteko sektore guztiak biltzen saiatu behar dugu". Horretarako, "erreferentzia eta helburu nazional erkideak (baita alde dialektikotik ere) argi zehaztu behar ditugu"⁵. Gainditu beharra daukagu egingo blokeo- eta etsipen-giroa, eta herri-ikuspegiz jardun.
51. ELAren iritziz, ETAk behin betiko armak uztea aurretiko eta ezinbesteko baldintza da -nahikoa ez bada ere- mugimendu abertzaleak helburu nazional bateratuen aldeko hitzarmena eta prozesua zehazteko behar dituen kondizio objektibo eta subjektiboak sortzeko. Lehenago genioenez, armen hautuak behingoz mugimendu abertzale zibilaren "egoera-ikuspegia, erri-tmoak eta prozesua" baldintzapean jartzeari.
52. ELAren ustez, nahi duten eta lanerako prest dauden erakundeek hartu behar dute parte hitzarmen eta prozesu horretan, eta ez da batzuen konpromisoaren mende jarri behar beste batzuen partaidetza. Mugimendu abertzale osoaren indar-metaketa da xedea, eta gerora alderdi horietako batzuek agian kontrolatuko dituzten erakundeen atxikimendua lortzea. 'Lizarra-Garazi' berri horrek ez du alternatibarik, hasieran oinarri-oinarrizko hitzarmen batekin

lan egin nahi eta ahal dutenak bakarrik egongo badira ere. Eraginkorra eta iraunkorra izateko, zehaztu egin behar da hitzarmen horretan zer lan partekatu behar diren, guztiak ere bateagarriak erakunde sinatzaile bakoitzaren lehentasunekin.

53. Kontua da norabide beretik jotzea irizpide bateratuak, helburu estrategikoak, oinarri politikoa eta soziala handitzeko adina kemen eta bizitasun duen dialektika baten bidez. Eginkizun horretan, lantalde gogotsuenean jardun nahi du ELAk, prozesu soberanista ahalik eta urrutien irits dadin.
54. Dena den, azpimarra dezagun zer den prozesu soberanista: konpromisoa; lan plural eta partekatua; etapak erretzea, hurbilketak bata bestearen segidan eginez, lanak zuzendu eta osatuz, aukerak aprobeztatuz. Badago behar adinako oinarri sozialik eta eskarmentu metaturik; badago militanterik, eta mugimendu abertzaleak zilegitasun osoa du gure helburu nazional eta politikoen alde borroka egiteko. ELAren ustez, gizarteari protagonismoa berriro ematea ezinbesteko baldintza da prozesu soberanista batek arrakasta izango badu. Gizartearen protagonismo hori aldarrikatzean oinarrizko bi alderdi ditugu gogoan: batetik, gizarteko kide gehienentzako eredu justuago eta solidarioago baten aldeko borroka, eta bestetik, jendearen parte hartze aktiboa helburu nazionalak lortzeko bidean. Hain zuzen, esaten dugunean etorkizuneko prozesu soberanista batean "nahi dutenak eta prest daudenak" egongo direla, guretzat funtsezkoa ez da politikaren ikuspuntu elitista baten ondorioz hartutako konpromiso batzuk betetzea, baizik eta prozesu sozialak bultzatzea, betiere prozesu horien lehentasuna, burujabetza lortzeko sine qua non baldintza, klase xeheak atxikitzea delarik.
55. Kontseilu Nazionalak Euskal Herriko Laborantza Ganbaran (Ainhizen) egingo du horri buruzko hausnarketa politikoa. Hain justu ere, prozesu soberanistaren ikuspegitik Ganbara sortzeko ekimenaren eredugarritasuna azpimarratu nahi du ELAk, Lizarra-Garaziko irizpide eta asmoekin bat baitator erabat: gizartearen eskari ozen bat zen; Ganbarako kideei, berriz, baliagarri zaie erakundea; mugimendu abertzale osoaren onespina du; profesionaltasunarekin eta zorrotasunarekin batera, militantzia eta herritarren laguntza ere osagai ditu; ideologia eta nazio-sentipena gorabehera elkartzen du jendea... Ez da harritzekoa, bada, Frantziako estatua ere konturatu izana Ganbararen bertute eta ahalez, eta horregatik ekin die erakunde horren aurkako prozesu judizialei eta boikotari.

5. Gure posizioa

56. Etorkizunera begira, Lizarra-Garaziko aurrekariaren zer batzuk gainditu beharra dauzka indar politiko eta sozialen arteko hitzarmenak. Zer horietako bat da zer eginkizun izan behar eta ahal duen hitzarmeneko indar bakoitzak. Lizarra-Garaziko itunean, izan ere, bi korrante politiko nagusiek sortu eta kudeatu zuten hitzarmena, eta gainerako erakundeak laguntzaile edo bidelagun hutsak ziren ia-ia.

57. Eredu sozialaz eta sindikalaz deusik ez zioen hitzarmenak, eta, agian, beste aukerarik ez zegoen. Fase berri batean, ordea, ELA ez da konformatuko laguntzaile hutsaren lana egitearekin eta prozesu soberanista sendotzeko ezinbesteko deritzen lehentasun sozial eta sindikalak bere gain hartzen saiatuko da, hedapen sozial handiagoa izan dezan prozesuak.
58. ELAk uste du langileen alde egitea eta gizarte-eredu zuzenagoa eta solidarioagoa aldarrikatzea dela prozesu soberanistari egin diezaiokeen ekarpenik egokiena eta berariazkoena. Nazio bat eraikitzea da proiektu kolektibo bat elikatzea (integratzailea, solidarioa...), baina balio horiek talka egiten dute gure herrian nagusi diren politika publiko eta enpresarialen ikuspegi neoliberalekin. Politika horiek direla medio, gabezia larriak ditu gure gizarteak zenbait alorretan (etxebizitza, zerbitzu sozialak, osasuna, hezkuntza...).
59. Uste dugu, bestalde, prozesu soberanista batek nekez eragingo duela herritar xeheen atxikimendurik baldin eta haien premia laboral eta sozialak indar soberanisten agendatik kanpo uzten badira, edo indar horiek nagusi diren erakundeek (edo horietako batzuek) gaizki tratatzen badituzte. Alde horretatik, bateraezinak dira neoliberalismoa eta soberanismoa.
60. Sindikatu abertzalea garen aldetik, hiru helburu estrategiko ditugu: herritarren lan-kondizioak hobetzea, negoziazio kolektiboari lehentasun nagusia ematen diogula; gizarte justuago baten alde gogotsu jardutea, eta Euskal Herriaren askapen nazionalari laguntzea. Hiru helburu horiek dituzte bereizgarri gure militanteek, eta konpromiso beraren osagai dira hirurak. Sindikalismoa da abertzale izateko gure era.
61. Hego Euskal Herrian, jarraitu behar dugu sindikalismo erreibindikatzaila (nagusia EAEn, alde handiagatik) bultzatzen. Nafarroan, berriz, dezenteko ordezkariak lortu behar ditugu, eta handiagoa bihurtzeko itxaropenik badugu. Herrialde horretan, gure helburua da ekimen sindikalarren bitartez erreferentzia bihurtzen joatea, 'laguntza-sindikalismoa' deritzogun horren alternatiba izateko. Horixe dugu, hain zuzen ere, erantzukizun nagusia eraikuntza nazionalako prozesuan.
62. Ipar Euskal Herrian, ibilbideari ekin diogu, eta oso-oso positiboa da balorazioa: alde batetik, Manu Robles-Arangiz Fundazioa militante aurrerakoi eta abertzaleen lanari laguntzen ari zaio (prestakuntza-saioak, laguntza komunikazio-proiektuei, elkarte arteko zentroa...). Bestetik, Laborantza Ganbarekiko gure konpromisoa ere hor dago, Lizarra-Garazi berri batek izan behar lukeenaren eredu, ELAren ikuspegitik behintzat.
63. Normalizazio politikoa iritsi arte, bestalde, gogotsu jardungo da ELA bai ETAren eta erakunde horren ekintza armatuen aurka, bai giza eskubide indibidualak zein kolektiboak (adierazpen-askatasuna, presoek eskubideak, politikan aritzeko eskubidea...) urratzen dituzten politika antiterroristen aurka. Borroka armatua gaitzestearekin batera, erabat egin behar diogu uko politika antiterrorista honi babesa emateari, zuzenbide-estatua bere nahierara erabiltzen baitu, botere-bereizketa ez baitu errespetatzen, ez baititu bermatzen askatasun politikoak eta oinarrizko eskubideak. Ez genuke bakarrik aritu nahi eremu horretan. ELAren iritziz, funtsezkoa da ez jaustea amarru horretan, hots, ETAren ekintzak aprobetxatuz gurea ez den agen-

da bat ezarri nahi digun estrategian, aldaketa politikoari uko egitera behartu nahi gaituen horretan alegia.

64. Egungo egoerako kontraesanen jakitun izanik ere, ELAk uste du bide horretatik jo behar lukeela mugimendu sindikal abertzaleak, Lizarra-Garaziko deklarazioak irekitako egoera hartan hain garrantzitsua izan zen berak, eta sindikalismo erreibindikatzailerak egin behar lukeela, elkarri lotuz eraikuntza nazionalerako prozesua eta langileen eskakizunak.

Oharrak

1. Jose Elorrietaren hitzaldia (Gernikan, 1998ko urriaren 18an).
2. ELAren X.Biltzar Konfederaleko txostena, 03.120.
3. Ikus, bereziki, XI. Kongresuko (2004) txostena.
4. Borroka demokratikoari ekin burujabetza irabazteko, 2005eko irailaren 12an Nazio Batzordeak egindako bilerako txostena. Autodeterminazioaren aldeko eremu sozial eta politikoa jorratu, Nazio Batzordearen 2007ko ekainaren 11ko ebazpena. Lizarratik Garazira, indarrak biltzeko bidea, Gernikako ekitaldiko 10.urteurrenean (2007ko urriak 10) egindako hitzaldiak.
5. Aurrerabide eta askatasunezko etorkizuna, 7.1 eta 7.2. Batzorde Nazionalak 1992ko martxoaren 6an erabakitako ebazpena.